



# Kultur Astea hasiko da gaur Baliarrainen

**EKITALDIAK** ▶ Hitzaldiak, ikus-entzunezkoa eta haurrentzako tailerrak izango dira egun hauetan

**AMAIERA** ▶ Babarrun eta gaztain jatearekin bukatuko da igandean aurtengo Kultur Elejira ▶ 5



## Liburutegia teknologia informatikoetara moldatuz

**LEITZA** ▶ Herriko liburutegia egungo teknologia informatikoetara moldatzen ari da azken hilabete hauetan. Liburuzainak lan hori egin ahal izateko beste langile bat hartu dute jendearen arretaz arduratzeko. Jada 7.700 liburu, aldizkari, bideo... informatizata daude. Zerbitzua gero eta erabilgarriagoa izatea da helburua.

«Helduak dira gehien irakurtzen dutenak, maileguen arabera», adierazi dio HITZARI Jose Luis Huarte liburuzainak. Urtean lau bat mila edo izaten dira eta historiako liburuak eta aritzen dira bertan. Argazkian, Leitzako liburutegiko irudia, liburuzaina bertan dela. JAIONE ASTIBIA ▶ 7

**TOLOSA** ▶

## Gol festa Laskorain eta Muskiz artean

Tolosarrek 9-6 irabazi zieten bizkaitarrei ▶ 3

**ANOETA** ▶

## Gazte Asanbladak balantzea egin du

Gustura agertzen dira urtean egindako lanarekin ▶ 4

**BELAUNTZA** ▶

## Arratibelen jokaera salatu du Udalak

UEMAn Udalaren ordezkari gisa agertu zen baimenik gabe ▶ 6



## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **MAHALA**ren esneki eta txerrikiak zozketatuko ditugu

**NATURAL - NATURALAK**



Mahala baserria  
20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

## TOLOSA ▶

**Laskorain Ikastolako ikasle ohien afaria**

Hilaren 27an, Laskorain Ikastolako ikasle ohiek elkartzeko aukera izango dute; afaria antolatuta dute, Ferialekuan. Txartelak dagoeneko salgai daude. Orbela, Ikatza eta Iruña tabernetan, 20 euroren truke. Asteartero, gainera, taldetxo bat Kultur Etxean elkartzen da, 19:00etan, afari honen inguruko prestaketa-taz aritzeko.

## TOLOSA ▶

**Ilara luzeak sortu ditu kamioi istripu batek**

N-1 autobidean, Gasteizera-ko norabidean, Tolosako Izaskun auzo parean, kamioi batek artaziarena egin zuen atzo, 10:30ak aldera. Bi bideak moztu egin behar izan zituzten; horrek ilara luzeak sortu zituen autobidean eta baita Tolosa erdigunean ere, trafikoa hortik bideratu baituzten ertzainek eta udaltzaiek.

## TOLOSA ▶

**Begirale ikastaroan izen-ematea amaitzear**

Laskorain Ikastolak eta Kazkabarra taldeak begirale ikastaroa antolatuta dute Urtintxa begirale eskolarekin batera. Oraindik leku gutxi batzuk geratzen direnez, izena eman nahi duenak lehenbailehen egin dezala eskatu dute antolatzaileek. Horretarako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 677 48 99 71.

## TOLOSA ▶

**Merkatariei zuzendutako saioa, bihar**

*Finantza-entitateekin negoziatu* izenburupean, merkatariei zuzendutako hitzaldia antolatuta du Igarondo Merkatarien Elkarteak; bihar izango da, 20:15ean, Kultur Etxean. Guztientzat irekia da; Igarondoko kideek doan joan ahal izango dute, eta besteei 10 euro ordaindu behar dute. Informazioa eta izen-ematea 943 67 52 24an.

## GUTUN@K ▶

**Laskorain Ikastolako oroitzapenak**

Dagoeneko gehienek jakin-goto duzuen bezala, hilaren 27an afari eta festa mundiala antolatuta da Tolosako Ferialekuan Laskorain Ikastolako ikasle ohi guztientzat irekia.

Larunbat gauean taberna batean deialdiaren berri izatean, ikastolan bizi izan genituen oroitzapen asko etorri zitzaizkidan burura, denetik pixka bat; baina aitortu beharra daukat harro sentitzen naizela, garena, Ikastolan ikasi izanaz eta bertako helburuak inoiz baino garrantzitsuagoak direla gaurko gizartean.

Beraz, aukera paregabea dugu egun horretan belau-naldi ezberdinetako jendea elkartzeko, eta aitzaki horrekin parranda on bat botatzeko.

Han ikusiko garelakoan.

1975KO BELAUNALDIKO  
IKASLE BAT ▶ TOLOSA

## HEZKUNTZA ▶

# Lagun artean gozatuz, euskal jolasak eta pilota indartu

Euskal jolasen topaketa egingo dute, gaur goizean, Tolosan eta Ibarren; Samaniego, Laskorain, Anoetako Ikastola, Uzturpe eta Muñagorri ariko dira

## LEIRE MONTES

Topaketa berezia hartuko dute gaur Tolosak eta Ibarren. Kutzak antolatuta, eta Ikaspilotak sustatuta, euskal jolasen topaketa egingo dute gaur goizean. Eskualdeko gaztetxoak izango dira protagonista; eta lagun giroan euskal jolasak eta pilota indartzea, topaketaren xede.

Goizeko 09:30ean ekingo diote egitarauari, eta 12:30ean amaituko dira jolasak. Bi zatitan banatu dute goiza: 09:30etik 11:00etara lehena, eta 11:00etatik 12:30era bestea. Lehendabiziko zatian hiru pilotalekutan ariko dira parte-hartzaileak: Tolosako Beotibar eta Uzturpe pilotalekutan, eta Ibarren kiroldegian. «Neskamutirik taldeetan eta pilotalekutan banatuko ditugu. Pilotan ariko dira, hainbat eratan: kinniela palaz, erdian biok, txokotan...», azaldu dute Ikaspilotako ordezkariak.

Bigarren zatian, berriz, Tolosako Beotibar frontoian jardungo dute ikasle guztiek batera: «Alde batetik, ikasle batzuek proga puntuagarriak izango dituzte. Eta, bestetik, tailerretan parte hartzeko aukera ere izango dute». Besteak beste, eskuak nola babestu, xarean eta zesta-puntan ikasi ahal izango dute gaztetxoek.

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek hartuko dute parte gaurko topaketan. Hain zuzen ere, eskualdeko bost ikastetxetako gaztetxoak izango dira protagonista: Tolo-



Aurreko topaketa Anoetan egin zuten, iaizko marboan. A.I.PINTZA

## ZENBAIT DATU ▶

**Egitaraua.**

▶ 09:30etik 11:00etara, Tolosako Beotibar eta Uzturpe pilotalekutan, eta Ibarren.

▶ 11:00etatik 12:30era, Tolosako Beotibarren.

**Parte-hartzaileak.**

Samaniego ikastetxea (Tolosa), Laskorain ikastola (Tolosa), Anoetako ikastola (Anoeta), Uzturpe ikastola (Ibarra) eta Muñagorri eskola (Berastegi).

**Maila.** Lehen Hezkuntzako 5. maila.

**Jolasak eta kirolak.** Pilota, xarea, zesta-punta...

sako Samaniego ikastetxeko ikasleak, Tolosako Laskorain ikastolakoak, Anoetako Ikastolakoak, Ibarren Uzturpe ikastolakoak, eta Berastegiko Muñagorri eskolakoak.

**«Jolasa baino gehiago»**

Ikaspilotakoen esanetan, topaketa hauek jolasa baino zerbait gehiago dira: «Topaketaren heburua euskal jolasak, eta zehazki pilota, indartzea da. Baina ikasleen arteko harremanak lantzea eta garatzea ere du xede, beti ere jolasak nahiz lehia tresna motibatzaile bezala erabilia, eta ez helburu bezala». Ondo pasatzea eta gaztetxoaren artean euskal kulturaren transmisioa garatzea ere da topaketaren asmoa.

## PROBAK

«Proba puntuagarriez gain, era guztietako tailerretan parte hartzeko aukera izango dute ikasleek»

## JOLASA AITZAKI

«Ikasleen arteko harremanak garatzea dugu xede, jolasa eta lehia tresna motibatzaile gisa erabiliz»

## TOLOSA ▶

**Gobernuz Kanpoko Erakundeei diru laguntzak**

Funtzionamenduaren arabera eta egindako ekintzengatik emango ditu Udalak

## L. MONTES

Herrian ordezkariak duten Gobernuz Kanpoko Erakundeentzako (GKE) diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu berri du Udalak. GKE hauen funtzionamendua eta egindako ekintzak izango ditu kontuan Udalak diru laguntzak banatzerako orduan.

Eskaerak aurkezteko epea zabalik da, beraz; hilaren 15a, astelehena, izango da horretarako azken eguna. Udalak ez ditu tramitatu epeaz kanpo aurkeztutako eskaerak.

Eskaera horiek egiteko ereduak eta oinarriak Osasun eta Gizarte zerbitzuetako departamentuan daude. Informazio gehiago ere jaso daiteke bertan. Interesa duenak 943 69 74 60ra dei dezake, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

ARETO FUTBOLA ▶

# Gol festa ikusgarria Laskorain eta Muskiz taldeen artekoa

Tolosarrek 9 eta 6 irabazi zioten larunbatean Bizkaiko taldeari; maila bikaina erakustez gain, hiru puntu baliotsu eskuratu dituzte Egizabalen mutilek berriro

## IRATXE ETXEBESTE

Azkenaldian Berazubiko ohol zaharkitura gerturatzaren diren zaletuek areto futboleko norgehiagoka bat edo pilota partidu bat ikusi ote duten zalantzarekin etxeratzen direla esatea ez da harritzekoa. Joan den larunbatean ere, «kirol honen esentzia den golari 15 bider dei egin zieten taularen goiko postuetan buru-belarri sartuta dabilen Laskorainek eta taula horren beheko barrutiko su garrek dagoeneko erretzen hasia duten Muskizek». Horitoxek sendo dihardute beren gotorlekua eraikitzen; «inguruko zingira krokodilo eta marrazoz bete genuen lehengoan», esan dute Laskoraineko jokalariek, harro.

Ikastolako mutilek hasiera ona eman zioten guduari, Telletxea jakintsuaren gol bati esker. Hala ere, bizkaitarrak ez ziren kokildu, eta markagailuari bira emateko gauza izan ziren aitaren batean. «Altuna anarkistak ezarri zuten berdinketa areaz kanpotik egindako jaur-

tiketa baten bitartez, baina berriaz ere Muskizekoek aurrea hartu zuten ederki jositako jokaldi bati esker». Lehen zatia amaitzeko 2 segundu besterik falta ez zirenean Altunak berak asmatu zuen bizkaitarren atea zultzen, ezkerkada ikusgarri batekin.

Bigarren zatia hasi eta berehala Muskizekoek 3 eta 4ekoa sartu zuten, baina azken aldian golarekin amodio istorio bat bizitzen ari den Telletxeak ezarri zuten berriz ere berdinketa. Laskorainekoek bi gol sartu zituzten jarraian, ustez lasaitasuna ekarriko zuen 6 eta 4ekoa igoz markagailura. «Yustos hazitarakoa eta Altuna izan ziren borroak kasu honetan». Ustezko lasaitasun hura ez zen, ordea, berehalakoan etorri. Izan ere, Yustosek eta Altunak sartutako bi golekin ez ziren aurkariak zer suma geratu, eta laster batean erreakzionatzea lortu zuten, beste bi gol eginez Laskorainekoen atean. Bi minutu faltan markagailuak berdinketa erakusten zuen, baina «Saldias kapitainaren, Altuna

anarkistaren eta Barriola aztiaren golei esker azken 9 eta 6koa lortu zuten jokalarit tolosarrek».

Hurrengo jardunaldian ongi merezitako atsedena hartuko dute Egizabalen mutilek, orain arte egindako lan txukunarengatik eta hurrengo bi jardunaldietan jokatu beharko dituzten norgehiagoka garrantzitsuegatik: lehenengo Nogales taldeko jokalarit gipuzkoarren bisita izango dute, eta ondoren txapelketako egungo buru den Pitiren aurkako «zelai bateko bataila» hori prestatu beharko dute Laskorainekoek.

Berazubiko gotorleku barruan ezkutatzaren printzesa defenditzeaz «Egizabal jenerala, Javier Saldias koronela eta Amatriain, Alonso, Altuna, Arregi, Barriola, Beldarrain, Domentxe, Gil, Saldias, Telletxea eta Yustos soldaduak arduratu ziren larunbatean. Zurumurruek diotenez, gotorlekuko printzesak Altuna lerdana erabat sorginduta dauka. Honek ematen dion edabe miragarria omen da Mikelen den-

## ATSEDENA

Datorren jardunaldian «merezitako atsedena» hartuko dute tolosarrek datozen bi partidua prestatu ahal izateko

boraldi honetako errendimendua bikainaren eragilea. Mila esker, printzesa». Horixe adierazi du Mikel Altunak.

## Beheko mailakoak, gogotsu

«Bestalde, eta Laskorain K.E. izeneko errealitate honen islarik ahal den zintzoena egin nahirik, ezin ahaztu filialek eta nesken taldeak aurreko asteburuan jokatu zituzten norgehiagokak: Iker Arregiren ardurapekoek 7 eta 0, Joxetxo Otxoaren mutilek 1 eta 2 eta Alonsotarren neskek 2 eta 3 galduta zuten. Jardunaldi iluna ikastolako harrobiarentzat, baina orain arteko ilusioarekin eta lanerako gogoarekin jarraituz gero berehala argituko da».

XAKEA ▶

## Parte-hartze handia Urdiña Txiki txapelketan

Hirugarren urtez jarraian, Urdiña Txiki elkarteak bere izena daraman xake txapelketa antolatuta zuen igandean. Hogeita zazpi jokalarit elkartu ziren bertan Tolosatit, Ibarrik, Villabonatik, Asteasutitik eta Altxotit etorrita. Zahar, heldu, gazte nahiz haur, goiz osoan aritu ziren elkarren artean xake jokoa. Unai Iraola billabonatarrak irabazi zuen. Atzetik Javier Baroja eta Sabino Etxeberria tolosarrak sailkatu ziren: hirurek osatu zuten podiuma. Txapelketako sari berezia aspaldidanik Tolosan bizi den Carina Gonzalez jokalarit kataluniarrak irabazi zuen.

SASKIBALOA ▶

## Irabazi egin du berriz ere Aralar saskibaloit taldeak

Aralar saskibaloit taldeak 59-50 irabazi zuen larunbatean Berazubin Aldapeta taldearen kontra. Ondo hasi zuten denboraldia Jimmy Perezen mutilek, eta modu horretara jarraitzen dute; izan ere, azken partidua guztietan irabaztea lortu dute. Datorren neurketa igandean jokatu dute tolosarrek, Andoainen, bertako taldearen aurka.

FUTBOLA ▶

# Tolosak astindu ederra eman dio Grosekori, bost goleko aldeaz irabazita

6-1 irabazi zuten tolosarrek Zubietako zelaietan

## I. ETXEBESTE

Tolosak astindu ederra eman zion igande goizean Donostiako Grosekori Zubietako futbol zelaietan elkarren kontra jokatuako partiduan. Izan ere, azkeneko partiduetan lortutako berdinketak behingoagatik albo batera utzita, 6-1 irabazi zuten Orejaren eta Mujikaren neskek. Entrenatzaileen hitzetan «garrantzitsua» izan da partidua, hasiera-hasieratik aurkariak baino gogo handiagoz hasi zirelako jokatzeko, eta laugarren minuturako 2-0 jarri zirelako aurretik Iosune Corde-

roren eta Aintze Labaienen golei esker. Horrek ziurtasuna ematen dio taldeari, Orejaren eta Mujikaren aburuz. Jokoa ildo beretik jarraitu zuen handik aurrera, eta lehen zatia bukatzerako 6-0 gailendu ziren Tolosakoak: Iosune Coderok beste bi gol sartu zituen, Aitziber Cidek beste bat eta azkena, berriz, Irati Garrok.

Bigarren zatian bost aldaketa egin zituzten Tolosakoek eta lasaitasun pixka bat lortu zuten, hala; haiek aukerak sortu zituzten, eta halako batean heldu zen haien gola ere: «baina gure taldeak ondo eutsi die



Tolosa CFko neskek, denboraldi hasieran, taldea aurkezteko ateratako argazkian. HITZA

erasoei eta azkenean arazorik gabe 6-1 bukatu da partidua», diote Tolosakoek buruek.

Lehena ahalik eta ondoren amaituta, bigarren itzuliko lehen partidua oso ondo hasi dute Orejaren eta Mujikaren

neskek, eta jardunaldi honen ostean laugarren dira sailkapen orokorrean, 15 punturakin. Añorga da lider, eta tolosarrek baino bost puntu gehiago ditu. Haren aurretik dira Luberri (19) eta Ostadar (16). Aurre-

koekiko alde ez da, beraz, hain handia, eta oraindik aukera handiak ditu Tolosak sailkapenean aurrera egiteko. Horretarako bidean, ildo beretik jarraituko dute lanean aurrerantzean ere.

## ANOETA ▶ GAZTETXEA



Eguberrietan baserri baserri ibili ziren Gazte Asanbladako kideak. HITZA

IMANOL GARCIA

Anoetako Gazte Asanbladak aurtengo urteko balantzea egin berri du. Orokorrean gustura azaldu dira bururutako ekitaldiekin eta Gaztetxeak gizarre eragile modura egindako lanarekin. Antolatutako ekintzei dagokionez, balorazio baikorra egiten dute.

Esaterako, kontzertu ugari egin dira Gaztetxean —4 Itzal, Kauta, Surfing Kaos...— eta aurtengoa antolatzea espero dute. Hori bai, kontzertuekin diru galerak izan dituzte eta horregatik musika ekipoa erostea erabaki dute.

Bestalde, udal hauteskundeetatik ateratako udal taldearen «egoera antidemokratikoa salatzeko» egindako hainbat ekitaldi «txukun» egin zirela uste dute: Eguberrietan kantatzen atera ziren baserri baserri eta herriko festetan egitarau alternatiboa egin zuten. Beste hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte: laugarren urtemuga maiztean, Tolosaldea Musikaz Piztu egitasmoa eta Gazte Eguna, besteak beste.

Hobetze aldera, web orrialdeak bizitasun gehiago izatea eta antzerki taldeari bultzada

## Gustura daude egindako ekimenekin

### Gazte Asanbladakoek aurtengo balantzea egin berri dute

ematea proposatu zen. Bestalde, urtean zehar jende berririk ez delako inguratu kezka azaldu zuten.

#### Bizitza hartzen

Gaztetxeari dagokionez, azken hilabeteotan bizi pixka bat hartzen ari dela ikusi dute, pingongeko mahai eta saskia jarri baitituzte. Proposamenak ere egin dituzte: garbiketa txukunago eramatea, janari eta edari makinak jartzea eta etxe barruko pare bat pareta txukuntzea, besteak beste.

Bi lan ildo jorratu nahi dituzte aurrera begira. Alde batetik,

herriko egoera politikoaren bizi den «demokrazia eza salatzeko» eta AHT gaiaren («egoera oso kritikoa ikusirik») gehiago inplikatzeko proiektu horren kontrako egitasmoetan.

Horietaz gain beste gogoeta batzuk ere egin ziren bileran. Alde batetik, Gaztetxeak «suposatzen duen alternatiba» bultzatu nahi dute giro «aske, kritiko, eraikitzaile eta eztabaidarako aproposa» sortuz. Azkenik, Euskal Herriko gaztetxe ezberdinek «jasandako erasoaren aurrean, alkartasuna erakutsi eta gune libre horiek aldarrikatzeko» ekimenak lantzearen beharra ikusi zuten.

## HERNIALDE ▶

### Rolleski goiera izango da larunbatean

Hernaldeko Rolleski Igoera larunbat honetan egingo da. Ibilbideak bi zati ditu: 800 metro lauak eta gero 3,2 kilometroko goiera. Bi modalitate ezberdin izango dira: klasikoa eta *skating*. Klasiakoek goiera bakarrik egingo dute Hernaldeko Bentatik hasita. *Skatinge*koak ibilbide guztia egingo dute Belate auzotik hasita. Dortsalak 15:30ean Belate auzoan jasoko dira eta proba 16:00etan hasiko da. Parte-hartzaile guztientzat berezi prestatutako kamiseta eta merienda banatuko zaie. Sariak bi mailatan banatuko dira: gazteak —1989 urtetik aurrera jaiotakoak— eta helduak. Izen-ematea doan da eta datuak —izena eta bi abizen, jaiotza urtea eta elkarte edo herrikoa— Alpino Uzturre Elkartera bidali behar dira, Tolosako Gudari kalea 5 helbidera edo alpinozturre@hotmail.com posta elektronikora. Argibide gehiago 652 77 84 25 zenbakian, arratsaldetan.

## ANOETA ▶

### Herri plataformak hileroko batzarra egingo du bihar

Anoetarrak Auzolanean herri plataformak hileroko batzarra egingo du bihar. Udalarekin izango da hitzordua eta arratsaldeko 19:00etan hasiko da bilera.

## IRURA ▶

### Zahartzarako gaixotasunei buruz hitzaldia

Hitzaldia izango da bihar, 17:30ean, *Zahartzaroko gaixotasunak, prebentzioa* izenburupean. Zaharren biltokian egingo da eta ondoren gaitain jatea izango da.

## AMASA ▶

### Gazteen Eguna San Martin jaietan

San Martin jaien barruan, gaur Gazteen Eguna izango da. Oso goiz hasiko da egitaraua. Goizeko seietan bilduko dira gazteak Ongi-Etorri tabernan gosaria egiteko trikitilari eta dultzaineroek alaiturik. Ondoren baserri baserri joango dira oilasko eske, musikariekin lagunduta. Arratsaldean dantza soka eta aurrekua dantzatuko dira, 16:30ean hasita. Ondoren trikitilarien erromeria egingo da eta eguna bukatzeko Arantzabi jatetxean afaria egingo dute, 21etan hasita.

## VILLABONA ▶

### Agresibitatearen inguruko hitzaldia bihar Gurean

Erniobeia Institutuko guraso elkarteak hitzaldia antolatu du agresibitatearen inguruan bihar arratsaldean, 18:00etan hasita, Gurea aretoko erakusgelan. Familia eta ikasleen arteko agresibitate izango da hitzaldian jorratuko den gaia.

## VILLABONA ▶

### Ilgandeko ibilaldirako izen-emate epea irekia

*Euskal Herriko hiriburuak uztartu* egitasmoaren barruan, Aizkardi mendi elkarreko kideak Trebiñotik abiatu izandeko ibilaldian. Ohiko lekuetan eman daiteke izena eta horreterako azken eguna bihar izango da.

## iragarki laburrak ▶



**Aizarnazabal.** Txakolin saila duen 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai.

Nekazal ustiapenaren bitartez bi familientzako etxea egiteko aukera.

**Anoeta.** 125 m<sup>2</sup> eta garaiea duen duplex etxebizitza ederra.

**Belautza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioia; erabat argitsua eta garabiarekin.

**Belautza.** 225 m<sup>2</sup>-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

**Donostia.** Rodil zeharkalean, 45 m<sup>2</sup>-ko apartamentua salgai; erabat berritua eta altzariz hornitua.

Kanpoaldera begira.

**Donostia.** 94 m<sup>2</sup>-ko bulegoa salgai, Hotel Costa Vasca inguruan.

Banatzeko aukera.

**Gaintza (Nafarroa).** Berrikuntza behar duen hiru solairuko baserria salgai.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioia eta 2.500 m<sup>2</sup>-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza.

Lehenengo pisua; kanpoaldera.

**Lasarte.** Egoera bikainean dagoen 62 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioiak salgai, eraikuntza berrikoak.

**Lizartza.** Hiru solairuko baserria bordarekin, 100 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean eta 30.000 m<sup>2</sup>-ko

lursaila. Berritzeko.

**Segura.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai; erabat berritua.

**Tolosa.** San Esteban auzoan, 76 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza dago salgai.

Hiru faxada ditu, altzariak eta oso eguzkitsua da.

**Tolosa.** 50 m<sup>2</sup>-ko berritutako atikoa salgai; altzari batzuk baditu.

**Tolosa.** Gudari kalean 110 m<sup>2</sup>-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailuarekin. Telefona: 943 65 55 87.

BALIARRAIN ▶ KULTUR ASTEA

# Babarrun-jatearekin amaituko da Kultur Elejira

Gaur hasi eta igandera bitarte ekitaldi ugari antolatu ditu Udalak

**O LAIA ESKITXABEL**

Hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, haurrentzako tailerrak eta bazkaria antolatu dituzte Kultur Elejiraren egitarauaren baitan. Gaur hasi eta igandera bitarte kultur ekitaldi ugari izango dira.

Lehenengo bi egunetarako bi hitzaldi antolatu ditu Udalak; gaur, Xabier Arrazola medikua autoestimaren garrantziaren inguruan mintzatu da. Hitzaldian, bizitzako gorabeherei baikortasunez aurre egiteko, autoestima hobetzeko... tresna psikologiko egokiak eskaintzen saiatuko da. Bihar, berriz, Moira Zeberio tolosarrak ongizate-maila eta bizi-kalitatea hobetzeko eta komunikazioarekin erlazionaturiko ohiturak emango ditu ezagutzera. Elikadura egokia jarraitzeak, ariketa fisikoa egiteak... bizimodu osasuntsuagoa izatean duten garrantzia azalduko du, besteak beste.

Etzirako, Eneko Etxebarrieta gasteiztarrek Miyuki Okabe lagunarekin batera, bizikletaren gainean mundu osoan zehar egindako lau urteko bidaia ezagutzeko parada izango da. Ikus-entzunezkoan, 300 irudiei esker eta toki desberdinetako musika erabiliz, abenturaren

une gogoangarrienak jasotzen dira. Beste kulturetako haurren eta gazteen bizimodua ere erakutsiko da. Emanaldiak gutxienez ordu bateko iraupena izango du.

Aipatutako hiru emanaldi horiek Gipuzkoako Kutxa Ikasgelak antolatutakoak dira; 20:00etan hasiko dira.

**Asteburuko ekitaldiak**

Asteburuan ere ekitaldi ugari izango dira. Larunbatean, azaroaren 13an, haurrentzako tailerrak antolatu dituzte. Laz, gazteko pultsera eta lepokoak, Hennazko tatuaiak eta *Cespin* panpina egin zituzten haurrek begiraleen laguntzaz. Aurten, malabare eta koadernaketa tailerrak antolatu dituzte; begirale eta irakasle lanetan Ani eta Iosu ariko dira.

Kultur Elejirari amaiera emateko, babarrun eta gaztain-jatea antolatu dute. Pilotalekuan egingo dute bazkaria igandean, azaroaren 14ean. 14:00etan izango da. Babarrunak, odolkia, aza, txerri-kostila, gazta eta irasagarra eta gaztainak izango dituzte jateko. Bazkaltzen amaitzerakoan, txerria zozketatuko dute, gainera. Bazkal ondorena, trikitilariak alaituko dute.



lazko Kultur Elejiran haur ugari gerturatu ziren tailerretara. O.ESKITXABEL

**EGITARAUA ▶**

**GAUR**

**20:00.** *Autoestimaren garrantzia*-ri buruzko hitzaldia.

**BIHAR**

**20:00.** *Komunikazioa eta adiskidetasuna: Bizimodu osasuntsurako giltzarriak* hitzaldia.

**ETZI**

**20:00.** *4 urte, 46.000 Km, 35*

*herrialde* Eneko Etxebarrieta ikus-entzunezkoa.

**AZAROAREN 13**

**17:00.** Haurrentzako tailerrak: malabare eta enkoadernaketa tailerrak.

**AZAROAREN 14**

**14:00.** Babarrun eta gaztain-jatea pilotalekuan. Ondoren, trikitilariak.

AMEZKETA ▶ KULTURA

## Joxe Ramon Agirreren diaporama, Udalaren eta Galtzaundiren eskutik

'Bizitzaren bidea. Gasherbrum II' diaporama etzi izango da ikusgai gela balioanitzean

**O.ESKITXABEL**

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Amezketa Udalak Joxe Ramon Agirreren, *Marron*-en, diaporama emanaldia antolatu dute etzirako. *Bizitzaren bidea. Gasherbrum II* izeneko emanaldia.

Aurreko lanetan bezala oraingoan ere, Agirreren ibilaldien ikuspegia azaltzen duten irudiekin gozatzeko aukera

izango da. Gasherbrum (8305 m.) inguruan, glaziarren ondoren ezkutatuta dauden mendiak eta tontorrak ikus daitezke diaporaman.

Berrogei minutuko iraupena duen lan honetan, irudiekin batera, Pako Aristi idazlearen testu eta hitzez osatutako gidoia izango da entzungai.

Emanaldia gela balioanitzean izango da 19:00etatik aurrera.



Diaporaman ikus daitekeen irudietako bat. HITZA

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIK**

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**  
Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**GARRAIOAK**

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxis: 67 04 20  
▶ Taxis (Leitza): 608 873016

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Santa Maria, I., Nafarroa Etorbidea, 2 (Tolosa). 65 46 10. Gimeno, A. Elbarren 52 (Leitza). 112

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona\_aiztondo@tolosaldeko hitza.info  
**Anoeta.** 687 41 00 22  
anoeta@tolosaldeko hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko hitza.info

**iragarki laburrak ▶**

**LANA**

**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 691933.  
**Ileapaintzailea.** Zute ileapaintzailea: esperientzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik-ostegunera: 10:00-18:00etara; larunbatetan: 9:00-14:00etara. Telefonoa: 943 671934.

**SALGAI**

**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa salgai. Argibidetarako deitu 943 674806 / 943 117738.

## IBARRA ▶ KIROLAK

Larunbateko derbian  
EHUk irabazi zuen

Berrito ere baloiaren nagusi izan zen etxeko taldea, baina golak egiten ez zuen asmatu

## I. TERRADILLOS

Partida eskasa burutu zuen Ibarra areto futbol taldeak Belabietan larunbatean, EHU-ren aurka jokaturako derbian eta ondorioz 2-5 galdu zuen.

Donostiarrei, izan zituzten aukera urriak aprobetxatzea nahikoa izan zitzaizen partida irabazteko eta, Ibarrek bestalde, baloia bere esku izan arren, sare barruan sartzeko zailtasunak izan zituen ohiko den bezala.

Etxeko taldeak mendean hartu zuen EHU partida hasieran eta aukera garbiak izan zituen golak egiteko, baina atezain donostiarrak geldiketa paregabeak egin zituen.

Zazpigarren minutuan aurretik jarri zen Donostiako taldea, Hautsik bere atearen sartutako gol baten ondorioz. Hiru minutu geroago alde handituko zuen EHUk 0-2koa egin baitzuen.

Ibarrek indartsu jarraitu zuen partidari buelta eman nahian eta aukera garbiak sortu bazituen ere ez zuten sare

barruan baloirik sartu. Bai ordea Donostiakoek, atsedenaldirako minutu bat geratzen zenean kontraeraso batean 0 eta 3 jarri zuten markagailuan.

Bigarren zatian gauzak ez ziren gehiegi aldatu, eta Ibarrek baloiaren jabe izaten jarraitu zuen. Yarza izan zen Ibarrekentzat lehendabizikoa sartu zuena, Hautsiren jaurtiketa baten ondorioz.

Ibarrek buelta eman ziezaiokeela markagailuari zirudien, gutxira Pradosek 2-3koa egin baitzuen. Baina bederatzigarren minutuan, Ibarrekoen hutsigite bat aprobetxatu zuen talde donostiarrak eta laugarren egin zuten. Eta penalti bikoitz baten bidez egin zuten azkena, markagailua 2-5 utziz.

Bestalde, jubenilen ligan, Lauburuk Xotaren auka jokatu zuen, nagusien partidaren aurretik. Hauek mendean hartu zituzten Xota taldeko jokalarriak eta 8-3 irabazi zuten. Aipatzekoa da nagusiei golak egitea lan handia ematen dien bitartean, jubenilen taldekoek 38 sartu dituztela 4 partidetan.



## Izaskungo ermita beterik

IBARRA ▶ Jende ugari bildu zen igandean Izaskunen mendeurreneko meza nagusira. Joan zirenetako asko kanpoan geratu beharra izan zuten. Bertan izan ziren Tolosa eta Ibarrekoroak eta apaizak eta baita udaleko ordezkariak ere. Meza amaitzean hamaitakoa bildu ziren denak. JOKEMI SAIZAR

## BELAUNTZA ▶

KZguneak  
tutorearen bisita  
izango du

Gaur Belauntzako KZguneak tutorearen bisita izango du. 9:00etatik 13:00etara izango da eta berriak aurkitzeari buruzko mintegia antolatu dute.

## IBARRA ▶

Giltza bat  
aurkitu zuten  
igandean

Pasa den igandean Ibarren izan zen Babarrun festan giltza bat aurkitu zuten. Giltza honek laban txiki bat du lotuta. Tolosako Ortzadar mertzeriara (Iurre auzoa) joan beharko du galdu duenak edo 635 75 70 48 zenbakira hots egin.

## BERROBI ▶

Frontenis  
txapelketarako  
izen-ematea

XIII. Frontenis Txapelketarako izena eman daiteke udaletxean, Urkola tabernan, Iriarte jatetxean eta Tolosako Aralar Kirolak dendan hilaren 12a baino lehen. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du eta banakakoek, 5 euro.

## GAZTELU ▶

Ramon Otegi  
hirugarren  
Irungo kroseean

Pasa den igandean Irun hiriko krosa jokatu zen eta Ramon Otegi gazteluarra hirugarren suertatu zen. Lasterketa honetan, Jose Jabier Cuadrado izan zen garailea. Cuadradok alde egin zuen taldetik eta soilik Ibon Esparzak, Ramon Otegi, Cipriano Burciok eta Hossaim Kaanachek lortu zuten jarraitzea. Emaiza ona da gazteluarrarentzat, eta beraz modu onean eman dio hasiera denboraldi berriari.

## BELAUNTZA ▶ POLITIKA



Belauntzako udaletxea. IÑIGO TERRADILLOS

Sustraiak-en  
aurka egingo  
du Udalak

Itziar Arratibeli UEMAko bilerera agertu izana leporatzen dio Udalak

## IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den azaroaren 3an Belauntzako udaletxean osoko bilkura egin zen, eta besteak beste, urriaren 16an egindako UEMAko bileran gertatutakoari buruz hitz egin zuten.

Belauntzako Udala, UEMAko (Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko) udalari partaide denez, pasa den urriaren 16an Zestoan egindako bilerara deiturik zegoen.

UEMA deritzon erakundearen, Edurne Arbelegi Belauntzako alkatea eta Estanislao Otaegi zinegotzia dira, hurrenez hurren, ordezkari eta ordezkariaren ordezkari. Hain zuzen ere, udaletxean egindako bilkuran aukeratu ziren funtzio horretarako.

Bai ordezkaria, bai eta ordezkariaren ordezkaria ere izan zuten Zestoan egin zen bilerara joan eta honen berri eman zioten UEMAko bileraren antolakuntzari.

Gauzak honela, Belauntzako Udaletik adierazi dutenez, «jakinaren gainean dago udalari honetako Sustraiak taldeko partaide eta talde bereko zinegotzi den Itziar Arratibeli agertu zela bilera hartan, horretarako baimenik eduki gabe, inori horren berri eman gabe eta

gainera jakinaren gainean egonda, bera ez zela UEMAren aurrean Udalak dituen bi ordezkarietatik inor».

Honetaz gain, «Itziar Arratibeli ez zen agertu behar ez zen bilera hartara joatera mugatu, baizik eta gainera, berari ematerik ez zegokion botoa ere eman zuela, erakunde horretan Belauntzako herritarren hitza ordezkatzeko legitimotasunik gabe», gehitu dute Udaletik.

Bestalde, Belauntzako Udalak ez dakiela esan du, Itziar Arratibelek nola izan duen Zestoan egin zen bileraren berri. «Baina badakiela, berak bazekiela bertara joateko legitimotasunik ez zuela, eta are gutxiago udalariaren izenean botoa emateko», aipatu dio HITZARI.

Azkenik, Udalak mozio hau onartuta, bere aholkulari juridikoaren esku jarriko duela gaia, «honek Itziar Arratibelek legearen kontrako ekintzak burutu zituen azter ditzan eta, hala izanez gero, Udalaren esku dauden bide legal eta juridiko guztiak jarriko dituela ekintza hau salatze» gehitu dute Udaletik, pasa den aste osoko bilkuran beste gai batzuen artean, adostu zuten bezala.

**www.tolosaldekohitza.info**

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

LEITZA ▶ KULTURA

# Berrikuntzetara egokituz

Leitzako liburutegia egungo teknologia informatikoetara moldatzen ari da, pixkana-pixkana zerbitzua gero eta erabilgarriago izan dadin

JAIONE ASTIBIA

Leitzako liburutegian, hila-bete mardoska daramate bertako material guztia-  
ren informatizazioa egiten. Hain zuzen ere, lan horixe egiteko helburuz, bigarren langile bat hartu zuten 6 hilabetetarako, hau jendearen arretaz arduratzen zen bitartean, bertako liburutegian egitasmoa burutu zezan.

Eta horretantxe ari dira bada, edo ari da bertako liburutegian den Jose Luis Huarte. Laguntzailea joana den arren, ez baitago bukatua lana. Izan ere, liburutegian dauden liburu, aldizkari, bideo... material guztia, banaka-banaka hartu eta sailkatzea da eginbeharrekoa. Eta horrela 7.700 ale jada informatizatuta daude.

Nafarroa osorako baliagarri den informatikako programa baten arabera egiten da lana

JOSE LUIS HUARTE ▶ LIBURUZAINA

## «Helduak dira gehien irakurtzen dutenak, maileguen arabera»

Informatizazio lanak nola dozen jakiteko aitzakian, liburutegira joan eta xehetasun batzuk galdetu dizkio HITZAK.

**Ze zerbitzu eskaintzen ditu Leitzako liburutegiak?**

Bertan dagoen materialaren mailegu zerbitzua dugu: liburuak eta aldizkariak, bideoak, DVD-ak eta orain hasi berria, musikako CD-ena.

**Hori kanpora ater daitekeenari dagokionez.**

Bai. Eta bestela, ikasketarako edo irakurketarako aretoa dugu, alde batean eta ate inguru hartan, taldekakoentzat uzten dugu. Eta gero, Internet zerbitzua doan erabiltzeko aukera dago, ordua eskatuz gero.

**Arrakastatsua da, ezta?**

Bai. Jende askok erabiltzen du, eta baita ordenagailua bera ere lanak egiteko eta, inprimagailuz eta eskanerraz hornituta baitago.

**Bestela, erabiltzaile aldetik eta, etortzen da jendea?**

Bai, bai, mugimendua badago. Ikasleena boladaka izaten da, lanen eta azterketen arabera.

eta erreferentzia guztiak aldatu behar dira. Esate baterako bertan dagoen liburu bat hartu eta sarean horren fitxarik badagoen begiratu behar da. «Hala bada, gurea ere hor sartzeko, gure liburutegiko ezaugarriak ematea nahikoa da», Huartek adierazi zuenez. Bestela, katalogazioa berri berritik egin behar izaten da, horretarako ezarritako dagoen kode baten arabera, liburuaren ezaugarriak sartuz: izenburua, egilea, urtea, argitaletxea, ISBN-a, edizioa, orrialde kopurua, gaia... Edozein moduz liburu horri dagokion barra kodudun etiketa bat sortuko da eta lehen duenarekin trukatu egin behar da. Informatizazioa horretxi esaten zaio, beraz. Eta horrela, liburutegian dagoen edozein motatako ale bakoitzarekin. Orain arte, maileguen bidez kanpora gehien ateratzen diren liburu, aldizkari eta beste-



Leitzako liburutegian informatizazio lanetan ari dira. J. ASTIBIA

lakoekin aritu dira. Gainerakoak, aretoaren arretak uzten duen heinean, sartuz joanen omen dira.

Katalogazio lan hau, gazte-raz egiten dute, horretarako euskarazko kode edo araudi normalizaturik ez dagoelako. «Horretan hutsunea nabari dugu. Edozein moduz, halako hitz batzuk sartzen ditugu tartean eta hortxe joaten dira», zioen, behar hori nabarmenduz. Kontuak kontu, liburutegiaren erabateko arakaketa hau, xahuketa egiteko ere baliatu dutela adierazi zuen liburutegian «zaharkitutako aleak, informatikakoak eta adibidez, txikitutakoak... nonbait jasota daudela ziurtatu ondoren, lekurari ari gara», esanez eta bide batez «berrordenaketa egiten ere bai: sailkapenak zuzendu...».

Lan hau guztia hartu dute, finen, bertan dagoen informazioa eskuragarriago izateko, azkarrago aurkitzeko, eta hemen bezala, Nafarroako liburutegien sarean sartuta dagoen material guztiaz ere baliatu ahal izateko. Gainera, egokitza-pen hau aitzaki hartuta, bazki-

deen txartelak ere berritzen ari dira, bertako kode informatikoak txertatuz, «hemen ez ezik, sarean sartuta dagoen edozein liburutegian egin daitezke liburuaren maileguak», argitu zuen eta «hemengo katalogoan ez dagoen materiala, dagoen lekura eskatu eta honeraino ekarri ere bai», erantsi.

Leitzako liburutegia 1969. urtean ireki zen, Lesakeneko herrian. Hasieran oso liburu gutxi omen zituen eta gehienbat orduko nekazal eskola eta lanbide eskolako ikasleek erabiltzen omen zuten, ikasteko eta «elkarrekin egoteko txoko modura ere bai», diotenez. Gehienbat borondatez sortutako asmo eta zerbitzua zena hasieran, geroztik, pixkanaka sendotuz eta egonkortuz joan da eta doa, liburutegian finkoa izan eta bere ondarea ugartuz, garaietara egokituz ere bai, bistan denez, eta kokalekua ere, aspaldisko urtean. Okillinen, haur eskola eta Okille tailerren ondoan du. Eta asteregunez, arratsaldero irekitzen ditu ateak 15:00etatik 21:00etara, «jakin» nahi duenarentzat.

LEITZA ▶

## Txinpartak taldeak asmo berriak ditu eskaintzeko

Iraunkorra izanen den antzerki taldea eratu nahian eginahaitan ari da talde hau

J. ASTIBIA

Txinpartak antzerki taldeak deialdi zabala egin du, pres-tatu nahi duen antzerki lane-rako aktore eske. Antzerkiko zaletasuna eta bertan parte hartzeko gogoia izan dezakeen guztiak badu aukera, izena Pakonen —Hernandorena burdindendan— emanez.

Talde hau sortu berri-berria da. Herrian gauzak pres-tatzeko gogoia duten hainbat lagun dira, «herria mugitua-razi nahi dugu», zioten bul-katzaileek. Horrela, hainbat ideia dituzte eskuartean. Modu askotako ikastaroak egin nahi dituzte hurrengo urte horretan esate baterako, baina oraindik zehazteko dauzkatenak.

Zehaztua daukatena, ordea, antzerkiaren asmoa da. Oraindik isilpean gordeta duten arren, lana jadanik aukatuta omen dute eta orain taldea osatzeko lanetan ari dira, alegia, hasi aktore lane-tan ariko direnetatik eta laguntzaile eta dekoratugile-tarainoko lanetarako, jende-ari dei egin diete. Horrela, 13 pertsonai desberdineko obra omen denez egin nahi dutena, paper horiek egiteko beste hainbeste aktore behar dituzte; tekniko lanak, dekoratua eraiki eta moldat-zeko... Sor litezkeen eginkin-zun guztietan parte hartzeko gogoia duen orori deia egin dute: «Denen parte-hartze-ekin, denek sortuko dugun zerba-it iraunkorra izatea da helburua».



J. ASTIBIA

Bestelakoentzat berriz, jende helduak egiten du mailegu gehien, urtean lau bat mila edo izaten dira; eta historiako liburuak eta irakurtzen bertan ere aritzen dira. Bai, ongi.

**Badago bitxiren bat apal hauetan?**

Ez. Zaharrenak XX. mende hasierako liburuak dira, bai gazte-lerazko eta euskarazkoak ere. Liburutegia beranduan, 1969an irekitakoa baita. Gainera, ez lukete hemen edukit-zen ere utziko. ◀



Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 10a, asteazkena ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Ballarain, Belaurtza, Berastegi, Elduain, Hernaldea, Iruja, Iruja, Larradi, Lezaburu, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zizurki

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurritza.  
Kultura Salla

GAURKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

13

hotzera

13

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Anoeta.** Udalak eta Ikastolak ipuin lehiaketa antolatuta dute *Bazen behin emakumeak errespetu osoz tratatzen ziren planeta bat...* gaiari buruz. Baldintzak eta argibideak, udaletxean.

**Tolosa.** *Finantza-entitateekin negoziatu* hitzaldia merkatariei zuzendua, Igarondok antolatuta. Bihar 20:15ean Kultur Etxean.

**Tolosa.** Azaroaren 26rako urteko azken irteera antolatuta du Iturriza elkarteak (Euskal Herria plazako Jubilatuko egoitza) Iraberera.

**Villabona.** Osasun etxeko medikua hipertentsioari buruzko hitzaldia emango du Biltoki elkarteak 17:00etan.

**Villabona.** Hitzaldia: *Familia eta ikasleen arteko agresibitatea*. Bihar 18:00etan Gurea zinemako erakusgelan.

### ERAKUSKETAK

**Ibarra.** Jaietako argazkiak. Kultur Etxean.

**Tolosa.** Nerea Lopez. Koadroak. Fronton kafetegia.

**Tolosa.** Ana Jesus Ansorena. Zeramikak. Lanbroa taberna.

**Tolosa.** David Barandiaran. Koadroak. Sorron denda.

### IKASTAROK

**Iruja.** Udalak martxan jarriko ditu hainbat ikastaro:

mantentze gimnasia, areto dantza, sukaldaritza, antzerkia eta ipuin kontaketa. Interesa dutenek azaroaren 12a dute azken eguna izena emateko udaletxean

**Tolosa.** Laskorain Ikastolak eta Kazkabarra taldeak Urbintxa eskolarekin batera antolatutako begirale ikastarorako plazak daude. Izen-ematea 677 489971 telefonoan.

**Tolosa.** Amaroako Dantza Taldeak euskal dantzak ikasteko aukera ematen du. Ostegunetan 20:30etik aurrera elkartzen dira auzo elkartearen egoitzan (Amaroz jatetxearen gainean). Adin guzientzat zabalik.

**Tolosa.** Gurutze Gorriak elikadura trastornoek eta dieta orekatuaz ikastaroa antolatuta du hilaren 15etik 23ra. 12 ordu izango dira, 18:00etatik 20:00etara bere egoitzan (Arkaute etxea). Izen-ematea: 943 67 48 88, 647 37 15 29.

nahi duenak, Berazubiko kiroldegian azal daiteke astelehen, asteazken eta ostiraletan 19:30etan 21:00etan. Lehen hilabetea doan izango da, proba gisa.

### KIROLA

**Berrobi.** XIII. Frontenis Txapelketarako izena eman daiteke udaletxean, Urkola tabernan, Iriarte jatetxean eta Tolosako Aralar Kirolak dendan hilaren 12a baino lehen.

Bikoteak 10 euro ordaindu behar du eta banakakoek 5. **Tolosa.** Shanti Kirolak dendak autobusa antolatuta du datorren igandean Behobia-Donostia lasterketan parte hartu behar dutenen joan-etorriarako. Izen-ematea, dendan bertan.

**Tolosaldea.** Larunbatean egingo da Hernaldeko Rolleski Igoera. Izen-ematea: Alpino Uzturren (Gudari 5. Tolosa), 652 77 84 25 telefonoan (arratsaldeetan) edo alpinouzturre@begira.com posta elektronikoa.

**Villabona.** VII. Areto Futbol Torneorako izen-ematea irekia dago azaroaren 11 arte Olaederra kiroldegian. Partidak larunbata arratsaldetan eta igande goizetan jokatu dira. Txapelketa, azaroaren 20an hasiko da.

### SAN MARTIN JAIK

**Amasa.** Gaur 06:00etan Ongi-etorri tabernan gazteen gosaria trikitilari eta dultzaineroekin; dantza soka eta aurruskua 16:30ean; ondoren trikitilarien erromeria eta 21:00etan afaria Arantzabiz jatetxean. Bihar, meza, herri kirolak, bertsolariak, trikitilariak, pala txapelketako finala, eskuzko pilota partidak...

**Amezketak.** Bihar 11:00etan meza nagusia; 14:30ean bazkaria Behartzana jatetxean; Mañukorta eta Mendizabal bertsolariak eta Xapre eta bere laguntzaileekin; arratsaldean haurrentzako trena; ondoren, haur eta adinokentzako txokolate-jatea.

### ZINE-KLUBAK

**Alegia.** *Camino a la perdicion*. Gaztetxea 21:30ean.

**Ibarra.** *Al sur de Granada*. Gaztetxean bihar 21:45ean.

**Tolosa.** *Zaman, el hombre de los juncos*. Leidor zineman bihar 21:30ean.

# Buzoia Sarnabiagan

**TOLOSA ▶** Laskorain Ikastolak, Lizarra, Gasteiz eta Paz de Zigandakoekin batera, Euskaraz Bizi beste buzoi bat jarri du



Laskorain, Gasteiz, Lizarra eta Paz de Ziganda ikastoletako arduradunak buzoiaurrean. HITZA

### ERREDAKZIOA

Laskorain Ikastolako ikasleek euskararen erabilpena bultzatzeko, Euskaraz bizi proiektua sortu zuten duela urte batzuk. «Hasiera hartan inork gutxi sinisten zuen *Argitxoren* laguntzaz gure ikasleek euskara gaur egun hitz egiten duten neurrian hitz egingo zutenik, baina oso harro eta pozik egoteko arrazoia dugun», diote Laskorain Ikastolako ordezkariak. Euskararen erabilerraren neurketak egin dituzte eta oso emaitza onak jaso dituztela esan behar da.

Orduetik honera proiektu honen beste ikastola ugari bat egin dute eta «euskararen onerako izango denez, oso gustura» agertu dira Laskoraineko arduradunek.

Hasiera hartan abiatu ziren lau ikastoletako kideak —Gasteizko Euskararen aldeko lagunak, Atarrabiako Paz Ziganda Ikastola, Lizarrako Lizarra Ikastola eta Laskorain— urtero hitzordu garrantzitsu bat izaten dute: Euskal Herriko mendi batean Euskaraz Biziren eta *Argitxoren* omenez buzoi bat jartzen dute. Aitzakia honekin, egunpasa antolatzen dute. Eki-men honen antolaketaz txan-

daka arduratzen dira hiru ikastolak eta aurtengoan Lizarrako lagunei egokitu zaie egitaraua prestatzea.

Igandean, hiru ikastoletako hainbat ikasle, irakasle eta guraso Lizarran elkartu ondoren, Iurramedira igo eta Iratxeko monastegitik barrena Sarnabiagako begiratokira joan ziren, bertan jarriaz buzoi berrira, jartzen duten hamalagurra hain zuten ere.

Ekitaldi honetan 100 lagunetik gora elkartu ziren eta igandean izan zuten eguraldi ederraren laguntzaz, egun polita igaro zuten bertan bildutako lagunak.

### ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Andoni Belaunzaran (Amezketak). Gaur urteak. Zorionak etxekoan partetik.



**URTE ASKOAN**  
Josu Otermin (Anoeta). Gaur 6 urte. Zorionak aita, ama eta Maialenen partetik. Muxu handi bat.

## HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaiaberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia  
bi egun lehenago ekarri.  
Mila eskert!